

**"IRUÑEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNDUETAKO IKASKUNTZA-ZERBITZUKO
PROIEKTUAK SARITZEKO LEHIAKETA."**

Iruñeko Udalak IRUÑEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNDUEI ZUZENDUTAKO IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUAK SARITZEKO LEHIAKETA deitzen du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 17koan, argitaratua) xedatzen duenarekin bat.

1.-XEDEA.-

IRUÑEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNDUETAKO IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUAK SARITZEKO LEHIAKETA: lehiaketa honen xedea da ikaskuntza-zerbitzuko hezkuntza-proiektuak sortu eta abiaraztea Iruñeko ikastetxe publiko eta itunduetan; izan ere, metodologia didaktiko horrek etapa bakoitzeko curriculumean oinarritutako ikaskuntza prozesuak eta ikasleek tokiko komunitateari zerbitzua ematekoak uztartzen ditu.

Hartara, Iruñeko Udalak ikusarazi nahi du ikastetxeen gizalegezko konpromiso solidarioa, bai eta komunitateko eragile guztien gizarte-kohesioa eta parte-hartzea indartu ere, tokiko bizi-baldintzak hobetze aldera.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Hona hemen sari-modalitateak:

1. MODALITATEA: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako proiektuak
2. MODALITATEA: DBH eta Batxilergoko ikastetxeetako proiektuak
3. MODALITATEA: Lanbide Heziketako ikastetxeetako proiektuak

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 7.500 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida hauen kargura:

50/32630/450000

50/32630/482090

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

Lehen saria: 1.500 €

Bigarren saria: 1.000 €

Diru-sariaren zenbatekoa saritutako proiektua gauzatzeko erabili behar da. Soberako zenbatekoa, halakorik izanez gero, ikastetxearen edo proiektuan lagundu duen gizarte-entitatearen edozein behar asetzeko bideratzen ahalko da.

Proiektua ez bada 2019-2020ko ikasturtean abiarazten, ikastetxeak eskuratutako sariaren zenbateko osoa bueltatu beharko du, proiektua guztiz edo hein batean ez gauzatzeagatik.

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak egilearengandik eskuratuko ditu, berarendako bakarrik eta mundu-mailan, saritutako lan bakoitzari dagozkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak; orobat,

lan horiek erreproduzitu, banatu, jendaurrean paratu eta eraldatu ahalko ditu, libreki eta ezer gehiago ordaindu gabe, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asma daitekeen beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzkotan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro, hau da, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzekoa, eta horien artean, bereziki, liburu batean edo euskarri digital edo zenbakizkoan edizioa egitekoa, zein lana banatzeko eta jendaurrean paratzeko eskubideak, mundu osoko merkatuan ustiatzeari begira. Eskubide horien artean, berariaz daude sarturik hala lanak online igorri eta zabaltzea nola sare digital elkarreragileetan eskura jartzea.

Edonola ere, proiektuaren jabe gisara, Iruñeko Udalak saritutako proiektuak erregistratzen ahalko ditu Creative Commons-en Aitortu – Ez komertziala (by-nc) lizentziapean, zeinaren bitartez lan eratorriak sortzeko baimena ematen baita, baldin eta merkataritzarako erabiltzen ez bada. Jatorrizko lana ere ezin da merkataritza-helburuetarako erabili.”

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketa honetan parte hartzen ahalko dute Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako Iruñeko ikastetxe publiko eta itunduek, baldin eta ikastetxe bakoitzeko irakasle batek gutxienez parte hartu badu Iruñeko Udalak deitutako ikaskuntza-zerbitzuari buruzko prestakuntza-ikastaroan, edo, bestela, egiaztatzen badu prestakuntza jaso duela, aurrez, ikaskuntza-zerbitzua metodologiaren gainean. Halako kasuan, prestakuntza hori jaso izanaren egiaztagiria ofizialak aurkeztu beharko ditu.

Hortaz, lehiaketa honetan parte hartzeko nahitaezko betekizuna da egiaztatzea aurrez prestakuntza jaso dela ikaskuntza-zerbitzua metodologiari buruz, dela Iruñeko Udalak 2019ko irailean deituko duen ikastaroan parte hartuta, dela edozein administrazio publikok edo entitate pribatuk antolatutako antzeko ikastaroren bat egin izanaren egiaztagiria aurkeztuta.

Proiektuek jatorrizkoak izan beharko dute, eta 2019-2020ko ikasturtean abiarazteko sortuak eta diseinatuak. Gaztelaniaz edo euskaraz aurkezten ahalko dira, ikastetxearen hizkuntza-ereduaren arabera.

Ikastetxe bakoitzak ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bakarra aurkeztu beharko du hezkuntza-etapa bakoitzeko (Haur eta Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa), salbu eta LHko ikastetxeen kasuan, horiek bat etorri beharko dutelarik honako hiru eredu hauetako batekin:

A eredu: Ikasgela-talde batendako proiektua, zeinean curriculumeko ikasgai bat edo gehiagoko ikaskuntzak diren helburu eta Iruñeko gizarte-entitate edo erakunde publiko batek, gutxienez, parte hartzen duen.

B eredu: Ikasgela-talde bat baino gehiagorendako proiektua, zeinean curriculumeko ikasgai bat edo gehiagoko ikaskuntzak diren helburu eta Iruñeko gizarte-entitate edo erakunde publiko batek, gutxienez, parte hartzen duen.

C eredu: Ikastetxe osoarendako proiektu bat, zeinean, gutxienez, Iruñeko gizarte-entitate edo erakunde publiko batek parte hartzen duen.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:

BAI EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.

PROIEKTUAK IRUÑEKO UDALAREN ESKABIDE OFIZIAL BIDEZ AURKEZTU BEHAR DIRA, ETA HORREKIN BATERA AURKEZTU BEHARKO DA, 1. ERANSKIN GISARA ATXIKITA DOAN IZENA EMATEKO FORMULARIOA.

PROIEKTUAREN BEHIN BETIKO DISEINUAK BAT ETORRI BEHARKO DU IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTU BAT EGITEKO SAIO PRAKTIKOAN (AZAROAK 7) AZALDUKO DIREN JARRAIBIDEEKIN ETA FORMATU METODOLOGIKOAREKIN.

EZ DIRA LEHIAKETARA ONARTUKO ATXIKITAKO I. ERANSKINAREKIN BAT AURKEZTEN EZ DIREN PARTE HARTZEKO ESKAERAK, ADIERAZITAKO LUZERA GAINDITZEN DUTENAK EDO IZENA EMATEKO FORMULARIOAN ESKATUTAKO ELEMENTUAK GARATZEN EZ DITUZTENAK.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren partaidetza eta Gazteriako Alorra, Descalzos k., 72, 31001, Iruña.

Halaber, beste edozein bide erabiltzen ahalko da lanak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen artean.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2019ko azaroaren 20an amaituko.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitzen ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatu du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako zinegotzi ordezkaria.
- Epaimahaikideak: Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendaria.
 - Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko Idazkari Teknikoa.
 - Iruñeko Udalak antolatuko duen ikaskuntza-zerbitzuari buruzko prestakuntza-ikastaroa emango duen pertsona.
 - Ikaskuntza Zerbitzu Solidarioaren Nafarroako Sareko kide bat, elkarteak berak izendatua.
 - Iruñeko Udaleko pedagogo.
- Idazkaria: Administrazio bat, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako zinegotzi ordezkariak izendatua.

Lehiaketara lan asko aurkeztuz gero beharrezkoa balitz, epaimahaian kide bat edo gehiago erants daitezke, betiere metodologia didaktiko horretan adituak.

Epaimahaia honako irizpide orokorrekin bat baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak:

- Lotura, curriculumeko ikaskuntzaren eta ematekoa den zerbitzuaren artean.
- Praktikaren oihartzuna, honako hauek aintzat hartuta: proiektuan inplikaturako ikasleen kopurua –ez soilik hartzaile gisara, baizik eta guztizko matrikula-kopurua aintzat hartuta–, zerbitzuaren hartzaile-kopurua eta proiektuaren iraupena.

- Zerbitzu-proiektuaren egiazkotasuna eta hirian dituen garrantzia eta eragina.
- Sareko lana ikastetxe eta tokiko gizarte-entitateen artean proiektua gauzatzeko.
- Proiektua gauzatzeko duten ikasleen parte-hartze aktiboa prozesuaren fase guztietan zehar: premiak identifikatzea, proiektua diseinatzea, hura gauzatea eta amaierako ebaluazioa egitea.
- Parte hartuko duten ikasleen artean gogoeta eta pentsamendu kritikoa bultzatzen dituzten jarduerak.
- Gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dauden Iruñeko herritarrei zuzendutako proiektuak.
- Giza eskubideak eta haurren eskubideak babestu eta hedatzeko proiektuak.

Saria emateko proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaio, hau da, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Zinegotzi Ordezkarari, horrek proposamenaren gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezin lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: BAI EZ

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoekz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es webgunean kontsultatu ditzakezu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu daitezke, eta hedabide ezberdinetan zabaldu daitezke.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa lehiaketa hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Saritu gabeko lanak Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrean jasotzen ahalko dira (Descalzos k., 72, 3. sol.).

Behin proiektuak gauzatura, ikastetxe parte-hartzaile bakoitzak aurkeztuko ditu publikoki hurrengo lehiaketaren sari-banaketa egiten denean.

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar parte-hartzaileek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro organo emaileak ebatziko du.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

SARI-DEIALDIA, IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUETARAKO, IRUÑEKO IKASTETXE
PUBLIKO ETA ITUNDUEI ZUZENDUA

1. ERANSKINA: 2019ko LEHIAKETAN IZENA EMATEKO INPRIMAKIA

**Proiektuaren
izenburua**

Ikastetxea:

Helbidea:

Ikastetxearen telefonoa:

Ikastetxearen helbide elektronikoa:

Proiektuaren arduraduna:

Arduradunaren helbide elektronikoa:

Harremanetarako telefonoa:

Parte hartzen duten irakasleak (proiektua gauzatuko dutenak, ez zerbitzua jaso):

Izen-abizenak:

Zein ikasmaitan irakasten duten:

Harremanetarako helbide elektronikoak:

Zein modalitatetara aurkezten den:

1. KATEGORIA: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxetako proiektuak
2. KATEGORIA: DBH eta Batxillergoko ikastetxetako proiektuak
3. KATEGORIA: Lanbide Heziketako ikastetxetako proiektuak

PROIEKTUAREN LABURPENA (200 hitz gehienez)

Proiektuaren eredia:

A eredia. Ikasgela-talde batendako proiektua, zeinean curriculumeko ikasgai bat edo gehiagoko ikaskuntzak diren helburu eta Iruñeko gizarte-entitate edo erakunde publiko batek, gutxienez, parte hartzen duen. □

B eredia. Ikasgela-talde bat baino gehiagorendako proiektua, zeinean curriculumeko ikasgai bat edo gehiagoko ikaskuntzak diren helburu eta Iruñeko gizarte-entitate edo erakunde publiko batek, gutxienez, parte hartzen duen. □

C eredia. Ikastetxe osoarendako proiektu bat, zeinean, gutxienez, Iruñeko gizarte-entitate edo erakunde publiko batek parte hartzen duen. □

Proiektua zein ikasmailatan gauzatzen den:

Ikasmaila bakoitzean, proiektua gauzatzen duen ikasle-kopurua:

Proiektuaren bidez landuko diren curriculum-edukiak:

Aurreikusitako hasiera-data:	Aurreikusitako amaiera-data:
------------------------------	------------------------------

Zein gizarte-entitate edo erakunderekin elkarlanean:	
Zerbitzuaren esparrua: Adinekoendako laguntza <input type="checkbox"/> Premia bereziak dituztenendako laguntza <input type="checkbox"/> Eskola-ikaskuntzak hobetzeko laguntza <input type="checkbox"/> Ingurumenaren babesa <input type="checkbox"/> Herritarren partaidetza <input type="checkbox"/> Giza eskubideak / Haurren eskubideak <input type="checkbox"/> Garapenaren aldeko lankidetzak <input type="checkbox"/> Elkarbizitzaren sustapena <input type="checkbox"/> Osasunaren sustapena <input type="checkbox"/> Arteak <input type="checkbox"/> Kultur ondarea <input type="checkbox"/> Teknologia berriak <input type="checkbox"/> Besteren bat (zehaztu zein):	
Proiektuaren hartzaileak:	

Iruñean, 2019ko azaroaren (e)an
 Ikastetxeko zuzendariaren sinadura eta zigilua

SARI-DEIALDIA, IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUETARAKO, IRUÑEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNDUEI ZUZENDUA

AURRETIKO PRESTAKUNTZA-JARDUERA:

Izenburua: Ikaskuntza-zerbitzu solidarioko proiektuetan (APS) oinarritutako ikaskuntza

Modalitatea: Ikastaroa

Nori zuzendua: Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Iruñeko ikastetxe publiko eta itunduetako irakasleei.

Justifikazioa:

Iruñeko Udalak IRUÑEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNDUEI ZUZENDUTAKO IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUAK SARITZEKO III. LEHIAKETARAKO deialdia egiten du. Proiektu horiek "hezkuntza-proposamenak dira, eta ikaskuntza-prozesuak eta komunitateari zerbitzuak emateko prozesuak uztartzen dituzte ondo lotutako proiektu bakar batean, hartara lortuta parte hartzaileek benetako premien inguruan lan egiten ikastea, betiere ingurua hobetzea xede" (Centre Promotor d'Aprenentatge Servei). Lehiaketaren deialdian bertan betekizun gisa eskatzen da Iruñeko Udalak ikaskuntza-zerbitzuari buruz egiten duen ikastaroan parte hartu izana, edo aurrez antzeko prestakuntza jaso izana ikaskuntza-zerbitzua metodologian, prestakuntza hori jaso izanaren egiaztigiri ofiziala aurkeztu beharko delarik.

Ikastaroaren helburuak:

- Gogoeta bultzatzea, ikaskuntza-zerbitzuko metodologiaren bitartez, ikastetxeek eraldaketak bultzatzeko duten potentzialaren gainean, hiriko komunitate-garapenez bezainbatean.
- Hiriko irakasleen berrikuntza-didaktikoa erraztea, ikaskuntza-zerbitzu solidarioko proiektuak diseinatu eta abiarazita.
- Hiri osoan ikusaraztea Iruñeko ikastetxeen konpromiso solidario eta gizalegezkoa.
- Gizarte-kohesioa eta parte-hartzea indartzea, unibertsitatez besteko ikastetxeetan, tokiko bizi-baldintzak hobetze aldera.
- Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat diseinatzea, hura Iruñeko Udalak egindako sari-deialdira aurkezteko.

Ikastaroaren edukiak:

1. Ikaskuntza-zerbitzuko hezkuntza-praktika baten oinarrizko betekizunak.
2. Ikaskuntza-zerbitzuaren hasi-masiak (Aps).
3. Nola lortu ikaskuntza-zerbitzuaren bidez ikastea?: curriculum-ikaskuntzak edo curriculum kanpokoak?
4. Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat egiteko faseak:
 - a. Prestaketa: zirriborroa, gizarte-entitateekiko harremana, proiektu-plangintza
 - b. Gauzatzea: proiektua taldearekin prestatzea, gauzatzea, eta amaiera ematea.
 - c. Ikuspuntu anitzeko ebaluazioa: taldearena eta kideena; entitateekin egindako lanarena; proiektuarena oro har; irakasleen autoebaluazioa.

Metodologia:

Hizlariak ikaskuntza-zerbitzuari buruzko eduki teorikoak emango dituzte, proiektua fase guztietan egiteko beharrezkoak diren tresnak azalduta. Saio teorikoen ostean, beste bat egingo da proiektuaren diseinua eta plangintza lantzeko, betiere proiektuak lehiaketara aurkezteko epea amaitu baino lehen. Saioa zabalik egongo da ikastaro hori egin ez baina ikaskuntza eta zerbitzuan prestakuntza egiaztatzen duten irakasleei.

Lehiaketan saritutako proiektuek ikastaroa emango duten pertsonen aholkularitza jaso ahalko dute, proiektu hori abiarazi eta gauzatzeko.

Hizlariak:

Ikaskuntza Zerbitzu Solidarioaren Nafarroako Sareko (RedNAySS) kideak

Arduraduna:

Iruñeko Udaleko Hezkuntza Unitatea
Nuria Goñi Oiz: 948-420524
educacionpamplona@pamplona.es

Ikastaroaren tokia:

Cardenal Ilundain Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa
Marcelo Celayeta etorb., 117
Ikastetxearen ondoan bada zelai bat, doan aparkatzeko

Datak hauek izan litezke:

Saio teorikoak: 2019ko irailaren 25a eta urriaren 2a eta 9a.

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat egiteko saio praktikoa: Azaroak 23

Ordutegia: Saio guztiak 16:30etik 18:30era izanen dira

Ziurtagiriak: Hezkuntza Departamentuak ikastetxearen Erakunde Prestakuntzako 15 ordu onartu eta aitortzen ahalko ditu (aurrez aurreko 8 ordu eta proiektuaren prestaketa-lanetarako, 7), eta prestakuntza hori zuzendaritza-taldeak egiaztatuko du

Leku kopurua: 30 leku saio teorikoetarako, eta ikastetxe bakoitzeko 2 lagunak gehienez ematen ahal dute izena. Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat egiteko saio praktikoa muga hori gainditu daiteke, baina aurrez izena eman beharko da.

Gutxieneko lagun-kopurua: 15 lagun

Izena emateko epea: izena emateko azken eguna **2019ko irailaren 20a** izanen da, eta honako datu hauek bidali beharko dira educacionpamplona@pamplona.es helbidera

- Ikastetxea:
- Posta-helbidea:
- Ikastetxearen telefonoa:
- Izena eman nahi duten bi irakasleen izen-abizenak, zein ikasmaitan ematen duten, baita harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa ere:

- Izen-ematea honako saio hauetarako:
 - Ikastaro osoa
 - Saio praktikoa soilik
(kasu honetan, aurrez ikaskuntza-zerbitzuan prestakuntza jaso izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da)

Hautatzeko irizpideak:
izena emateko ordena.

Hizkuntza: Gaztelania

Oharrak:

- Onartuen behin betiko zerrenda 2019ko irailaren 23an igorriko zaie izena eman duten ikastetxeei eta irakasleei.